

## **2022. URTEAN ESTERIBARKO UDALAK HERRI BABESTUEN ZAINDARIEN JAIK EGITEKO DIRULAGUNTZA DEIALDIAREN OINARRIAK, ESTERIBARKO TALDE, ELKARTE ETA BIZILAGUNENTZAT**

Esteribarko Udalak, bere aurrekontu orokorrek ezarritako mugen barruan, honako **OINARRIEN arabera** emanen ditu dirulaguntzak:

### **1.- DEIALDIAREN XEDEA**

Laguntzen helburua 2022. urtean zehar Esteribarko Udala osatzen duten herrietako zaindarien jaiak (Herri babestuak) sustatzea eta babestea izanen da.

### **2.- FINANTZAKETA**

Esteribarko Udalaren 2022. ekitaldiko aurrekontu orokorreko 3380 2262002 eta 3380 2262003 kontu-sailen kargura finantzatuko dira diru-laguntza horiek, kontu-sail horretan ezarritako gehieneko zenbatekoarekin.

Onuradunek gehienez 400€ jaso ahal izanen dituzte kopuru finko gisa, eta kopuru aldakor gisa, 15€ deialdia ebazten den unean udal-eroldan izena emandako biztanle bakoitzeko.

Era berean, Esteribarko Udalak bere gain hartuko ditu, behar izanez gero eta onuradunak hala eskatuta, gehienez puzgarri baten kostua (Ollokiren kasuan, kopuru hori handitu egingen da) komun kimiko baten kostua (Ollokiren kasuan, kopuru hori handitu egingen da), elektrizitate hargunearen egokitzapena, karparen muntaia eta desmuntaia, mahai eta aulkien mailegua eta erantzukizun-aseguruaren kostua.

### **3.- DIRULAGUNTZAREN XEDE DIREN JARDUERAK**

Diruz laguntzen ahal diren proiektuak Esteribarko Udalaren babespeko herriko jaiak dagozkienak izanen dira.

Deialdi honetatik kanpo geldituko dira:

- a)** Asistentziazko jarduerak (antolatzaileen soldatak, dietak...)
- b)** Bazkariak eta afariak
- c)** Ausazko jokoetan parte hartzea
- d)** Esteribartik kanpo egiten diren jarduerak
- e)** Elkartearen edo taldearen beraren gastu orokorrak edo mantentze gastuak
- f)** Piroteknia ala bigantxak askatzea.

#### **4.- ESKATZAILEAK**

Laguntza hauek gizarte eta kultur arloko elkarte edo taldeek edo Esteribarko bizilagunek eskatu ahal izanen dituzte, irabazi asmorik gabe, baldin eta Esteribarko bizilagunentzat baztertzailleak ez diren eta ibarreko bizilagunentzat irekita dauden jarduerak egiten badituzte.

#### **Hauek dira onuradun izateko baldintzak:**

##### 1.- Eskatzailea elkarte edo taldea bada:

- a) Legez eraturako erakundea izatea.
- b) Egoitza soziala Esteribarren izatea.
- c) Nafarroako Gobernuaren Elkarten Erregistroan inskribatuta egotea.

##### 2.- Eskatzailea bizilaguna bada:

- a) Jaiak eginen diren herriko udal-errolan izena emanda egotea ala bertako ohiko etxebizitza egiaztatzea.

#### **5.- ONURADUNEN BETEBEHARRAK**

Jarduera baterako diru-laguntza eskaera aurkezteak berarekin dakar hura emateko oinarriak ezagutu eta onartzea.

Diru-laguntzaren onuradunek betebeharrak hauek izanen dituzte:

- Ezin izanen dira bi herritako zaindarien jaiegun egun beretan ospatu. Kasu horretan, ukituek akordio batera iritsi beharko dute. Ados jarri ezean, udalak esku hartuko luke.
- Dirulaguntzak deialdiaren baitan onartutako programa gauzatzeko soilik erabiltzea.
- Esteribarko Udalak egin ditzakeen egiaztapen lanak onartzea.
- Udalari jakinaraztea diruz lagunduko diren jardueretatik beste laguntza edo diru-sarrera batzuk lortu direla.
- Deialdian jasotako dirulaguntza justifikatzea.
- Ahalik eta lasterren jakinaraztea programaren garapenean gertatzen diren aldaketak. Edozein aldaketa egiteko, balorazio-organoaren adostasuna beharko da.
- Udalak eskatutako baldintzetan justifikatzea diru-laguntzaren xedea bete dela.
- Publizitatean Udala aipatzea, diruz lagundutako jardueren 'laguntzailea' dela adieraziz.
- Onuradunek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea, halakorik balego.
- Ordaindutako diru-laguntzak itzultzea, deialdi honetan ezarritako baldintzak eta betebeharrak bete ezean edota egiaztatuz gero, ez zela bideratu laguntzak jaso zituen jarduera, programa edo proiektuetara.

#### **6.- ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA**

Deialdi honen onuradun izan daitezkeen elkarteek edo herritarrek hiru hilabeteko epea izanen dute eskabidea eta nahitaezko dokumentazioa aurkezteko, deialdiaren iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik zenbatzen hasita.

## **7.- ESKAERAK ETA DOKUMENTAZIOA**

Aurreko atalean aipatzen diren eskatzaileek agiri hauek aurkeztu beharko dituzte:

a) Eskabide-orri orokorraren eredia, honako egiaztagiri hauekin batera:

a.1) Elkarre edo taldeen kasuan:

- Nafarroako Gobernuaren Elkarrean Erregistroan inskribatuta egotearen egiaztagiria.
- Elkarrearen datu fiskalak (ordezkaria eta elkarrearen IFK)

a.2) Herritarren kasuan

- egiaztatuko da diru-laguntzaren xede diren jaiak ospatuko diren herrian udal-errolan inskribatuta dagoen. Bestela, leku horretan bizi ohi dela egiaztatu beharko du.

a.3) Herriko jaietako egitaraua.

a.4) Gastu eta sarreren aurrekontu banakatua, eurotan adierazita, bai eta ematen diren tokiko baliabideak edo baliabide propioak eta beste instituzio edo erakunde batzuei eskatutako edo emandako diru-laguntzak ere, betiere diru-laguntzaren xede den jarduera-programari dagokionez.

Eskabideek adierazitako baldintzak betetzen ez badituzte edo aipatutako agiriekin batera aurkezten ez badira, Esteribarko Udalak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluaekin bat etorriz, 10 eguneko epea emango du, jakinarazpena egin eta hurrengo egunetik aurrera, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko agiriak aurkezteko, eta adieraziko du, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egingen duela.

## **8.- EBAZPENA**

Esteribarko Udalak baloratuko ditu aurkeztutako eskabideak eta Alkatetzaren ebazpen bidez emanen dira diru-laguntzak.

## **9.- DIRU LAGUNTZA ESLEITZEKO IRIZPIDEAK**

Diru-laguntza emateko, kontuan hartuko dira herriko jaietako jardueren programa eta aurrekontua, eta, udalak egoki irizten badu, gehienez ere, honako hauek emanen ditu:

- a) 400 € kopuru finko gisa eta kopuru aldakor gisa, gehienez ere 15 € deialdia ebazteko unean udal-errolan inskribatutako biztanle bakoitzeko.
- b) Komun kimiko baten kostua.
- c) Elektrizitate hargunearen egokitzea
- d) Karpa muntatzea eta desmuntatzea
- e) Aulkiak eta mahaiak maileguan uztea
- f) Erantzukizun zibileko aseguruaren kostua

Puzgarriei dagokienez, **Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barne eta Justizia Departamentuko Joko eta Ikuskizun Publikoen Atalak erabilera publikorako ekipamendu puzgarriak baimendu, instalatu eta abian jartzeko ezarritako protokoloan** xedatutakoa aplikatuko da, eta, ondorioz, beharrezkoa izanen da:

- Ekitaldiaren antolatzaileak eskabidea aurkeztea, jarduera hasi baino 15 egun lehenago gutxienez, eta instalazioaren kokalekua eta martxan jartzeko hasiera eta amaiera datak eta ondoko dokumentazioa:
  - a. Instalazioaren dokumentazio teknikoa, ekipoen deskribapena eta segurtasunarekin zerikusia duten alderdi esanguratsuenak.
  - b. Fabrikatzailearen edo hornitzailearen ziurtagiria, ekipoa EN 14960 arauarekin bat egin dela edo segurtasun-baldintza baliokideak bete dituela adierazten duena.
  - c. Ekipoa berrikusi edo mantentzeari buruzko ziurtagiria edo agiri baliokidea.
  - d. Erantzukizuneko aitortpena, instalazio edo gainbegiratze baldintzak eta organo eskudunak zehazten dituen bestelakoak betetzen direla dioena.
  - e. Erantzukizun zibileko aseguruia, jardueraren balizko arriskuak estaltzen dituena, sute-arriskua barne.
  - f. Zerbitzuan jarri aurreko ikuskapenaren emaitzari buruzko txostena.
  - g. Udalak, behar izanez gero, erantzukizuneko aitortpenean azaldutakoa betetzen dela frogatzeko agiriak eskatu ahal izanen ditu, baita ekipoen instalazioa ikuskatu ere, haien segurtasuna egiaztatzeko.
- Behin-behineko instalazioetan, instalazio eramangarrietan edo desmontagarrietan egin nahi diren jolas-jarduerak udal-lizentzia berezia beharko dute. Lizentzia hori administrazio-prozedura laburtu batean emanen da, kasu bakoitzerako egokiak diren segurtasun-baldintzak betetzen direla egiaztatu ondoren (martxoaren 13ko 2/1989 Foru Legearen 6. eta 7. artikulua).
- Aurretiazko ikuskapenaren emaitzari buruzko txostenik ez badago, instalazio-baimenak ekipoa zerbitzuan jartzea baldintzatu ahal izanen du.

## **10.- ORDAINKETA**

Dirulaguntzak %100ean ordainduko dira aldez aurretik. Ordainketa herriko jaia baino hilabete lehenago egingen da. Ordainketaren erregularizazioa 2 hilabeteko epean egingen da, eskatutako gastuen frogagiri guztiak aurkeztu ondoren.

Onuradunak ez badu behar bezala justifikatzen diruz lagundutako programa egin dela, itzultzeko eskatuko da, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren I. kapituluaren xedatutakoaren arabera, proportzionaltasun-printzipioaren arabera.

## **11.- JUSTIFIKAZIOA**

Justifikazioak, oro har, dokumentazio hau jasoko du:

- a) Diruz lagundutako programaren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa.

- b) Diruz lagundutako programa finantzatu duten beste diru-sarrera edo dirulaguntzen zerrenda zehatza.
- c) Gastuak jatorrizko fakturen edo fotokopia konpultsatuen eta horien ordainketa-agiriaren bidez emanen dira.

### **12.- JUSTIFIKAZIORAKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEKO EPEA.**

Egiaztagiriak Udalaren erregistroan aurkeztu beharko dira, jaiak amaitu eta bi hilabeteko epean. Epe hori luzaezina izanen da, ez da dokumentazio osagarririk onartuko behin epe hori amaituta.

Oinarri hauetan adierazitako dokumentazioa osoa aurkeztu ez bada, Esteribarko Udalak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. Artikuluarekin bat etorriz, 10 egun balioduneko epea emanen du, jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita, akatsa zuzentzeko edo falta den dokumentazioa aurkezteko, eta adieraziko du, eskatzaileak hala egiten ez badu, eskaeran atzera egingen duela, ebazpena eman ondoren.

### **13.- ARAU-HAUSTEAK ETA ZEHAPENAK**

- a) Arau-hauste eta zehapenei dagokienez, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren IV. tituluan xedatutakoa beteko da (toki-erakundeen administrazioaren dirulaguntzak emateko eta kontrolatzeko araubide orokorra arautzen du lege horrek).
- b) Zehapen-prozedura Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legean ezarritakoa izanen da.

### **14.- DIRULAGUNTZEN ARAUBIDE OROKORRA**

Deialdi honetan aurreikusi ez den orori dagokionez, Esteribarko Udalaren kultur, hezkuntza, kirol, gazteria, laguntza, giza eta gizarte helburuetarako diru-laguntzak arautzen dituen ordenantza aplikatuko da. Ordenantza hori 2005eko apirilaren 27ko 50. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Halaber, dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legean eta horrekin bat datozen gainerako arauetan xedatutakoari jarraituko zaio.

Esteribarren, sinadura elektronikoak adierazitako datan

ALKATEA

Sin.: M<sup>a</sup> Matilde Añon Beamonte